

EUSKALTASUNAK

OROITZ BAT

ILLUNABARTZEN duben garayan goi garbi badago, ikusten da zer ederki eta manchokiro eskutatzen dan eguzkiya itsaspean berdinkirozko borobiltasun aundi eta ederrezko urre antza galduaz, urpera sartuko balitz bezela, gabaren mendeko eztaipera.

Eguzkiyak bere sarrerako garaiz, biltzen ditu printza ugaritsu eta eder ayek, kolkak bere chituak illunabarrean egopera bezela, eta illargiyak inguratzen ditu beregan lagungarritzat izan ditzan, izar dizdiranta argi eder ayek, zeñak esan nai diguten dirala, Jaungoikua gurtutzen dauden aingeruak.

Egintza miraritsu eder onen gayaz edo eguzkiyaren sarreragatik, ara zer diyon lotozkari bikaiñ On Ramon Artola zanak, bere izkribu samur eta egokiro egiñtako batean.

Eguzkiya asten da
jehchitzen, jechitzen,
dizdizera ederra
zayola guchitzen;
diamantezko printzak
zaizkanean galtzen,
urrezko bola baten
ichuran da jartzen,
eta geldi, geldi da
itsaspera sartzen.

Errenkada abek irakurtzen dituenik, astu ote liteke lotozkari bikaiñ eta gaiñ gañeko argaz? Ez deritzot; euskalduntzat geon buruak

dauzkagun guztiyak, beti egongo gera uste osuan, zalla izango dala euskal seaskako mandirepean ark utzi zuben uztasuna betetzen.

Bigarren urte muga osatuko da illen onen ogeyan ill zala mundurako, ¿bañan nork daki geroztikako aren berririk? Opa zayogun bere anai euskaldunok zeruko zoriontasuna, eskatuaz biyotzez, Jaunak bere kolkuan dezala.

JUAN IGNACIO URANGA.

1908^{ko} abustuan.

